

Zerain Burujabek herrian ustez gertatu den langile-esplotazioa salatu nahi du

Atzo Zeraingo Udaleko osoko bilkura berezian mozio bat aurkeztu zuen Zerain Burujabek ustezko langile-esplotazioaren kasuaren aurrean gaitzespen bateratua plazaratzeko eskatuz

Zeraingo EH Bilduren udal gobernuak mozio hori onartu ez zuenez eta komunikabideetan argitaratu diren azken berrien aurrean inolako adierazpenik egin ez duenez, Zerain Burujabek bere gaitzespen oharra argitaratzea erabaki du

Atzoko Udaleko osoko bilkura berezian adierazi bezala, Zerain Burujabek ez du langileen esplotazio, tratu txar edota esklabutzarik onartzen, ezta giza eskubideen kontrako deliturik ere. Irmoki salatzen ditugu mota honetako ekintza guztiak eta gure baliabideak eskaintzen ditugu kasu hau argitu dadin.

Aurrerantzean horrelako kasuren bat herrian gertatuko balitz, edo gaur prentsa bidez zabaldu dena baieztatzen bada, Zeraingo Udalak pertsona edo entitate horiekiko harreman komertzial, laboral edo laguntza guztiak eteteko eskatzen dugu.

Aldi berean, prest gaude ekintza hau behar den lekuan salatzeko eta kaltetuei neurriko babesa eta laguntza juridikoa emateko hala, beharko balitz.

Zerainen, 2024ko ekainaren 12an.